

Getxoko Liburu Azokak 14.000 bisitari bildu ditu aurten

14.000 lagun inguruk bisitatu dute 15. Getxoko Liburu Azoka. Horrela, aurten ere bermatu da liburutegi zerbitzuen ekimenaren arrakasta. Bisitari jariora etengabea izan da, nahiz eta eguraldia kaskarra izan. Lau egunez, apirilaren 20tik 23ra, Algortako Geltokia plazak bertoko 10 liburu-dendaren etxolak hartu ditu eta bertan jarduera anitz egon dira. Bisitariak azken liburu nobedadeak ikusi eta erosteko aukera izan dute Getxon. Aurtengo obrarik salduena Eduardo Mendozaren *El enredo de la bolsa y la vida* izan da. Haur literaturari dagokionez, Kroko eta Gerónimo Stilton bildumako liburuak izan dira arrakastatsuenak. Ohi denez, hainbat ekitaldi izan dira azokan, horietako gehienak aurtengo gaiari lotuta: zinearen mundua, hain zuzen ere. Aurten, irakurtzeko txokoa, haurrentzako jolasak, film laburren proiektzioak, tailer-ikuskizuna, ipuin kontaketa eta hitzaldia, besteak beste. Halaber, tokiko bildumako argazki zaharren erakusketa egon da azokan. San Nikolas plazako bilakaera hartu du gai aurten erakusketak.